

**EUSKADIKO ARTXIBO HISTORIKOra BISITA
VISITA AL ARCHIVO HISTÓRICO DE EUSKADI**

2018-06-11 Bilbao 11-06-2018

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Sailburua, Euskadiko Artxiboko arduradunok, jaun andreok, egun on.

Asteburuan Artxiboen Eguna ospatu da nazioartean eta hona etorri nahi izan dugu Euskadiko Artxibo Historikoa egiten ari den lana aitortzeko eta ezagutzera emateko ere bai.

Eraikin honetan, horma hauen artean, euskaldunon herriaren memoriaren parte handi bat dago gordeta. Herri honek ondare dokumentala zaintzeko apustua egin du eta gaur berretsi egin nahi dugu.

El patrimonio documental es parte fundamental de la historia, cultura e identidad de un País. Es reflejo esencial de nuestra memoria. Aquí, entre los documentos, datos, imágenes o microfilms encontramos la historia de lo que hemos sido y lo que somos. Una herencia imprescindible para seguir construyendo el presente y el futuro de Euskadi.

Este Archivo Histórico abrió sus puertas en 2014 con un patrimonio que no ha dejado de enriquecerse desde entonces.

En este edificio guardamos el Archivo General del Gobierno de Euskadi desde 1936. Es uno de nuestros tesoros con casi un millar de cajas con los fondos de la Administración de Euskadi hasta 1979.

Aquí se encuentran también fondos de administraciones judiciales, juntas electorales, asociaciones y fundaciones; fondos familiares, depósitos personales, colecciones fotográficas; copias en microfilm de diferentes instituciones; o los fondos del Instituto Gogora.

Aurten ere Artxiboak jarraitu du dokumentu-funts garrantzitsuak jasotzen:
-Egin egunkariaren dokumentu-ondarea ikusi dugu, oraindik ere egokitze lanetan;

-Udaberri honetan Eusko Ikaskuntzaren funtsen parte bat heldu da; eta
-Erakunde horren esku zeuden hainbat artxibo eta balio handiko milaka dokumentuz osatutako 2.000 kutxa guztira.

Datozen hilabeteotan altxor gehiago helduko dira Artxibora:

-Manu Leguineche kazetari estimatuaren funtsak jasotzen ari gara, XXgarren mende gorabeheratsuaren bigarren erdian mundu osoan zehar gertatu dena islatzen duen testigantza;

-Federico Krutwig Sagredo idazle, pentsalari, politikari eta euskaltzainaren funtsak ere, haren alargunaren dohaintzari esker; eta

-Zavala familiaren artxiboa ere helduko da laster. Euskadiko artxibo pribaturik handiena da, kalitate, aniztasun eta dimentsio handikoa, XVgarren mendetik XXgarren mendera arte dokumentazio ugari biltzen duena.

Gaurko eguna beraz, baliatu nahi dugu eskerrak emateko Artxiboan konfiantza izan duten guztiei. Leguineche, Krutwig-Claes eta Zavala familiak izan dira azkenak. Eskerrik asko zuen eskuzabaltasunagatik.

Somos concedores del trabajo realizado para recuperar documentos desperdigados o abandonados, restaurarlos y ordenarlos, y finalmente cederlos al patrimonio público.

Es un honor recibir de las familias Leguineche, Krutwig-Claes y Zavala estos fondos que van a pasar a formar parte del Archivo Histórico de Euskadi. Son tres Archivos familiares que representan tres épocas históricas diferentes de nuestro País.

Eskerrik asko por el trabajo realizado también por los técnicos y técnicas del Archivo y la generosidad demostrada a las familias que depositaron en nuestro Archivo sus fondos.

Este Archivo es un lugar para guardar el patrimonio documental, preservarlo, investigarlo y difundirlo. Es un lugar abierto y accesible a toda la ciudadanía. Un lugar para conocer el pasado con la vocación de construir un futuro mejor.

Hemen gordetzen ditugun eta helduko diren altxor berriei esker, Artxibo hau gure memoria-gune nagusietako bat dela esan dezakegu.

Eskerrik asko beraz, egunero-egunero proiektu hau posible egiten duzuen teknikari guztiei eta egiten duzuen guztioi, esan nahi dizuet gaurkoan eta larunbatekoa aprobetxatuz urte askotarako. Eskerrik asko eta zorionak.